



basajaunak eta

- Aitaita: basajaunak zer ziran?
- *Basajaunak? Basoan bizi izan ziran erdi gizon erdi abere batzuk.*
- Ikusi dozuz inoiz?
- *Bai zera! Jesukristo mundura etorri aurretik bizi ei zoāzan.*
- Eta zuk zelan dakizu hori bada?
- *Nire aitaita-amamak, hementxe sutondoan, inoiz esanda.*
 - Eta hareek nondik ekien?
 - *Hareek ere aurretikoak esanda.*
 - Eta zelakoak ziran izan basajaunok?
 - *Ba... handi handiak, uletsuak... burutik garriraino heltzen ei jakezan uleok. Zatarrak*!*
- Indar handia euken, ezta?
- *Bai... harri-urtika* mendirik mendira egiteko, indartsuak izan behar!*
- Eta bizkorrak?
- *Mendi tontor batetik beste mendi tontorrera salto baten egiten ei jöen.*
 - Ta buru-argiak eskolan?
 - *Aldi haretan ez jöat uste eskolarik egoanik... Ez, ez zoāzan buru-argiak. Baina nahiz-ta buru-gogorak izan baserritarrak baino lehenago ei jekien garia ereiten, uruna eihoten eta burdinea lantzen.*
 - Eta basoan bizi izaten ziralara esan dozu?
 - *Baita leza eta kobetan ere.*
- Eta onak ala txarrak ziran, aitaita?
- *Batzuk, onak; beste batzuk, ez hain onak... gaiztoak, dongeak.* Onak, ardien lagunak ei zoāzan eta otsoak agertuaz zarataka hasten ei zoāzan artzainak iratzartzeko.**
- Eta gaiztoak?
- *Bildurgarriak...! Gauaz ibiltzen ei zoāzan, iluntzeko abemarietatik goizeko argi kanpaietara bitartean.*

- Eta Bideetara urteten ei jöen...
Baina gero, euskaldunak kristinau egin ziranean indarra eta gaitasun* guztia galdu ebela esaten jöek eta kristinau ezaugarriren* bat egitean, "aitaren" esate baterako, alde egiten ei jöen apatx*-urtika eta birao*-urtika.*
- Eta laminak? Laminak zer ziran?
 - *Laminak? Sorginak-edo, garrizgora emakumeak eta garrizbehera ahateak*edo arrainak zoāzanak.*
 - Eta, non egoten ziran?
 - *Itsaso, erreka ta iturrietan.*
 - Eta, zer egiten eben?
 - *Buruko ulea orraztu ta orraztu... urregorritzko orraziaz.*
 - Onak ala dongeak?
 - *Danetarikoak.*
 - Badago gaurregun laminik?
 - *Kristautasuna Euskalerrira heldu zanean, beste siniskeria zahar asko legez, laminek ere ahaztuz joan zoāzan. Gaur ipuinetan eta toki izenetan geratu jakuk hareen gomutapena.* Horra hor, esate baterako, Lamiako, Lamikiz, Lamindano-eta toki izenok.*



* zatarra = itsusia, feo, deforme
* ...urtika = lanzando...

* dongea = txarra, gaiztoa, malvado
* iratzartu = itzartu, despertar

* gaitasuna = facultad, capacidad, cualidad
* ezaugarri = signo, señal

* apatxa = pezuña, herradura
* birao = maldición, blasfemia

* ahatea = paita
* gomutapena = oroipena, recuerdo